

TRUKE-LETRA ETA EUSKARA

Sarritan euskara dela eta, gure erakundeen (eta geronen) hutsune txikiak paperetara ekarri behar direnean, halako mingots zaporea igarten dugu gure barnean, zuzenean baino, okerrean gabiltzala ikustean.

Oraingo honetakoa ez da, halabaina, gauzarik xumeena. Izan ere, merkatal munduan eguneroko gai dugun truke letzari buruz ari naiz. Aspalditik dator, etorri ere, truke letra hau trafiko juridikoaren tresna eta diru zor baten agiri bezala. Edozein salmenta, erosketa zein ordainketak, ia Erdi Arotik, truke letra baten beharra izan du. Han hor hemenka truke letzak balio izan du betidanik zor baten ordainagiri legez, hartzekodunak zordunari libratzen diona, honek hari edo beste pertsona bati (letraren edukitzaileari) ordaintzeko beharra inposatuz.

Gauzak honela, truke letzak benetako ugalketa ezagutu izan du gure tartean epekazko salerosketei esker. Edozein mota-tako «gailu» berri hauek gureganatzeko orduan ia derrigorrezkoak dira truke letzak, berehala ez ordaintzekotan; batipat azkeneko urteotan zabaldu den bolada kontsumitzaile honetan.

Halare truke letra ezaguna zen, lehen esan legez, aspaldiko partetik. Honela esaterako XIX. mendean, euskal foruen galera-rekin batera etorri zen Espainiako kodegintzan, Merkatal Kodeak (1885) truke letra erregulatzen zuen, orduko arauak zehaztuz. Dena dela, kode honek, merkatal obligazioei buruz behin-

tzat (truke letra barne) xedapen argia zuen, erderaz ez ezik, bestelako hizkuntzak ere onartuz

51. Serán válidos y producirán obligación y acción en juicio los contratos mercantiles, cualesquiera que sean la forma y el idioma en que se celebren, la clase a que correspondan y la cantidad que tengan por objeto, con tal que conste su existencia por alguno de los medios que el Derecho civil tenga establecidos (47). Sin embargo, la declaración de testigos no será por sí sola bastante para probar la existencia de un contrato cuya cuantía exceda de 1.500 pesetas, a no concurrir con alguna otra prueba.

Geroko kontuak dira, nonbait, gazteleraren egungo erabilerara nagusia truke letretan. Batez ere, truke letraren gaineko zergei zegokien aldetik, erdera hizkuntza bakarra zelako (gerra aurreko kontzertu ekonomikoak aipatzeke noski). Gerra ostean, ordea, Ogasun Zentralak ezarritako sisteman truke letra Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergan kokatuta gelditu zen, zerga honen exakzioa paper tinbratuaren bitartez egiten zela. Paper tinbratu honen jaulkipena Hazienda Zentraletik zetorrenez geroz ez zegoen han euskerarentzako tokirik, dirudienez.

Baina beste arlo askotan bezalaxe, 1986 urtean txanda heldu zitzaion sail honen aldakuntzari eta ondorioz urteon erregulatu zen, besteak beste, truke letraren eredu berria, Espainia osora hedatzekotan. Euskal Herrian, oster, Kontzertu edo Itun Ekonomikoak jada (1980) martxan zeuden eta haien barne Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko eskudantza Aldundi Foralei zegokien osokiro. Ekonomi Ituna dela medio, esaterako, zerga honen arauketarako, Bizkaiko Aldundiak Azaroaren 28ko 85/10 Foru Araua ezarri zuen, bere 35. artikuluan truke letrari dagokion paper tinbratua ezarri beharraz mintzatzen delarik.

Bitartean eta Europako Ekonomi Elkarteari sarrera zela eta, estatu espainolak truke letrari buruzko erregulazioa aldatu zuen (Uztailaren 19ko 85/19. Truke letra eta txekeari buruzko legea). Lege horretan Europako eta nazioarteko legislazioareki-

ko hurbilketa saiatzeaz at, argiro erakusten da hizkuntzari buruzko erregulazioa:

TITULO PRIMERO

De la letra de cambio y del pagaré

CAPITULO PRIMERO

De la emisión y de la forma de la letra de cambio (1)

1. La letra de cambio deberá contener:

1. La denominación de letra de cambio inserta en el texto mismo del título expresada en el idioma empleado para su redacción.

Bazirudien, beraz, bi puntuak uztartu beharra zegoela, alegia, batetik Uztailaren 19ko 85/19. Legeak onartzen duen hizkuntz askatasuna eta bestetik Bizkaiko Aldundiak zuen eskuduntza ospa truke lettraren paper zildaikatua jaulkitzean, euskarari ere lekua ematen eredu berri honetan. Areago, kontutan hartzen bada, Euskararen Normalizaziorako legeak (1982) bi hizkuntzen (gaztelera eta euskara) koofizaltasuna ezartzen zuela, eta bere aplikazio eremuan ere doi doi sartzen direla Foru Aldundiak.

Ba, ez zen horrela gertatu. Bizkaiko Aldundiak Maiatzaren 21eko 86/55. Foru Dekretu baten bitartez, batu zituen truke lettrari buruzko lege berria eta Espainia osorako hedatu zen eredu, paper tinbratu foralaren jaulkipenarekin, truke lettrari zegokion aldetik. Eta batu ere, erderaz batu zituen Aldundiak, jarraian ikusten denez, bertan ageriko ereduaren arabera:

Horrela esanda, badirudi ostera ere euskara zokoratuta gelditu dela, arrazoiak oraino ezagutzen ez ditugula. Eta egoera samar antzekoa omen da Euskal Herriko beste Foru Aldundietan. Horri gaineratzen badiogu truke letra honen moldaketa elebiduna, gure ustez gauza neketsuegirik ez litzakeela izango, posibilitate hori haintzakotzat hartzea eskatuko genieke gure Aldundiei, batipat hurrengo truke letren jaulkipena egiterakoan.

Eta elebiduna proposatzen dugu, gaztelera eta euskara Komunitate Autonomoko eta Nafarroako alde batzuetan hizkun-

Lugar de Emisión		Fecha de Emisión		Vencimiento		Seguro	
Por esta LETRA DE CAMBIO pagará usted al vencimiento expresado la cantidad de							
en el domicilio de pago siguiente:							
PERSONA O ENTIDAD DIRECCION						Núm. de cuenta	
Cláusulas							
Firma, nombre y domicilio del librador						Firma, nombre y domicilio del receptor	

0022757

Reserva 2.600.000

Por valor de		Pagarse a	
de		con domicilio en	
Nombre y domicilio del avalista		Nombre y domicilio del endosante	

tza ofizialak baitira. Honela, besterik ez bada ere, Aldundiek beste inprimaki fiskal askorekin egin duten euskaratze prozesuari segida emango zioten, xedea benetako koofizialtasuna lortzea bada bederen.

Ez da, halabaina, hemen bukatzen arazoa. Truke letraren euskaratze hutsak, gainera, beste ondorio batzuen tartean, hauek ekarriko lizkioke euskarari:

A) Terminologia juridikoaren finkapena, erruz erabiltzen

den ordainagiria eskutartean euskaraz edukitzean; bestalde ere hainbat tokitan mesedegarria izango litzakeena euskararen normaltze prozesuan (Horra hor kasurako, Habek argitaraturiko «Laneko euskara» sailean «Aurrezki Kutxak eta Banka» liburuxka non, ariketa gisa, jasotzen baita, ez bakarrik letraren eredua, ez bada credu horren euskarapena, egunero bulegoetan agiri hau erabiltzen dutenek nonbaiteko erreferentzia eta informazioa eduki dezaten).

B) Beste dokumentu merkantil askoren ereduak euskaraz egiteko eredua, hots, truke letrari buruzko lege berberean erregulatzen diren txeke eta ordainagiriaren euskaratzea. Hauexek biak, bereziki, paper zildaikatuan egiteko beharra ez egonagatik ere eta beren jaulkipena esku pribatuetan izan arren (Banka, Aurrezki Kutxak, Entrepresa edo pertsona partikularrak) askatasun osoa baitago edozein hizkuntzan idazteko (eta euskaraz ere noski) legeak esandakoaren modura:

Del pagaré

94. El pagaré deberá contener:

1.º La denominación de pagaré inserta en el texto mismo del título y expresada en el idioma empleado para la redacción de dicho título.

De la emisión y de la forma del cheque

106. El cheque deberá contener:

1.º La denominación del cheque inserta en el texto mismo del título expresada en el idioma empleado para la redacción de dicho título.

Beraz, horixe da lantxo honen helburua: truke letra euskeratze prozesuan sartzea, honela euskarak hain urri duen mundu juridiko zein merkatalgoan bidea egin dezan, etorkizun hurbil batetan euskaldunen mintzairaren presentzia, arlo honetan berderen, ziurtatua izan dadin. Eta horren gainera legeak euskarari eskeintzen dion mundua, behin eta berriro osa dezagun, berari eta euskaldunoi zor zaien errespetua bermatuz.

Andres Urrutia